Iraila Kulturala

BERGARA 2021

## BERGARAKO KORU PARROKIALA

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 50 inguru.
- **BAZKIDEEN ADINA:** 70 urte.
- **TALDEA BILTZEKO:**
  - EGUNA: Ostirala
  - ORDUA: 17:30
  - TOKIA: Santa Marina parrokiako Sakristau Etxea
- **EGITEN DUTEN LANA:**
  - Herriko jaietako meza nagusiak, urtean ± 8.
  - Irteera batzuk.
- **KONTAKTUA:** kultura@bergara.eus



## BERGARAKO MUSIKA BANDA

1832ko otsailaren 19ko Udal agiri baten azaltzen da Bergarako Musika Bandaren lehen albistea. Ordutik, herriari musika eskaintzen eta Bergararen izena harro zabaltzen aritu da, sasoi gogorrenetan ere etenik izan gabe.

Aipatzekoa, bere historiaren 110 urtetan, Gonzaleztarren zuzendaritzapean izan dela Banda. Ignacio Glz. Escala 1909tik 1952ra, Miguel Glz. Bastida 1952tik 1987ra, eta Alfredo Glz. Chirlaque 1987tik 2019ra. Epe luze horretan, Euskal Herriko banda ez profesional onenen artea egon da beti Bergarakoa, hainbat sari eta aipamen lortuz. Nabarmentzekoak baita Gonzaleztarrek herrirako sortutako musikak, martxak, estanpak, etab.

Gaur egun, Bergarako Musika Eskolan hezitako musikariz elikatzen da Banda, eta orain arte bezala, ohitura eta berrikuntza uztartuz, etorkizunari aurre egiteko ilusioz prestatzen ari dira, 2019ko ekainetik zuzendari berria den Enrike Txurrukarekin batera.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 70
- **BAZKIDEEN ADINA:** 16 urtetik 76ra bitartekoak.
- **TALDEA BILTZEKO:**
  - EGUNA: Asteartea eta osteguna
  - TOKIA: Zabalotegi aretoa
- **EGITEN DUTEN LANA:**
  - Hilean behin eta jai-egunetan musika-kontzertuak eskaini.
  - Musika-konposizio ezberdinak interpretatu.
- **KONTAKTUA:** kultura@bergara.eus

## BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolak guztira 580 ikasle ditu, 3 urtetatik hasi eta... helduak baita ere.
Guztira 24 irakasle ditu eta 28 Istrumento herrikoiak, sinfonikoak, polifonikoak, tendentzia berriak eta Euskal dantzak ikasteko eskaintza.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 500
- **BAZKIDEEN ADINA:** 3 urtetik aurrera.
- **TALDEA BILTZEKO:**
  - EGUNA: Astelehenetik ostiralera
  - ORDUA: Arratsaldez
  - TOKIA: Espoloia z/g
- **EGITEN DUTEN LANA:**

**TXIKITATIK MURGILDUTA:** Suzuki metodoa (+3 urte) / Musika eta mugimendu tailerra (+5 urte) / Abesbatza (+5 urte) / Euskal dantzak (+6 urte) / Hizkuntza Musikala (+7 urte) / Instrumentua (+8 urte) Musikoterapia (+6 urte).

**GAZTEENTZAT:** Hizkuntza Musikala / Instrumentuak: herrikoiak, klasikoak, elektrikoak / Euskal dantzak / Kantu Bakarlaria / Taldeak: Abesbatza, Banda, Big-Band, Orkestra, Konboak, Trikitri taldea, Txistu Taldea, Akordeoia taldea, kitarra taldea...

**MUSIKAK EZ DU ADINIK:** Helduen Hizkuntza Musikala / Edozein instrumento ikasteko aukera / Helduentzako Euskal Dantzak / Kantu bakarlaria / Taldeak.

**Instrumentuak:** Bonbardino, tronboia, tuba, tronpeta, tronpa, klarinete, flauta, oboe, fagot, saxofoia, biolina, biola, biolontxelo, gitarra, piano, organo, akordeoia, perkusioa, kantua, trikitia, panderoa, txalaparta, alboka, txistua, dultzaina, gitarra eta baxu elektrikoa, batería.

- **KONTAKTURAKO TELEFONOA:** 943 76 57 80 (Musika Eskola) edo idazkaritza@bme.e.telefonica.net http://bergarakomusikaeskola.com/

## BERGARAKO ORFEOIA

1923. urtean sortutako elkartea, Euskal Herriko musika eta abesteko zaletasuna bultzatzeko helburuarekin.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 182 ABESLARIAK: 38
- **BAZKIDEEN ADINA:** 20 urtetik 77 urtera bitartekoak.
- **TALDEA BILTZEKO:**
  - EGUNA: Astelehena eta asteazkena.
  - ORDUA: 20:30-22:00
  - TOKIA: Santa Marinako Sakristau Etxean.
- **EGITEN DUTEN LANA:**
  - Gabonetako kontzertua, udako kontzertua...
  - Elkartrukeak beste herrietako abesbatzekin.
  - Ikuskizun musikalak: Oliver!, Olentzero & Company
- **KONTAKTUA:**
  - bergarakoorfeoia@gmail.com
  - https://www.facebook.com/bergarako.orfeoia



## BERGARAKO ORFEOI GAZTEA

Orfeoi gaztearen helburua da kantu-zaletasuna suspertzea eta Bergarako Musika Eskolako haur koruen eta Bergarako Orfeoiaren artean zubi-lana egitea. Bergarako, Euskal Herriko eta munduko musika abestea eta, bide batez, zaletasun korala zabaltzea da.

- **KANTARI-KOPURUA:** 25-28 pertsona
- **BAZKIDEEN ADINA:** 13-18 urte bitarteko gazteak
- **TALDEA BILTZEKO:**
  - EGUNA: Asteartea
  - ORDUA: 19:00-20:30
  - TOKIA: Santa Marinako Sakristau Etxean.
- **EGITEN DUTEN LANA:**
  - Gabonetako kontzertua.
  - Elkartrukeak beste herrietako abesbatzekin.
- **KONTAKTUA:** bergarakoorfeoia@gmail.com



## BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOA

1986an Bergarako Musika Eskolaren magalean sortu zen, Alfredo Gonzalez Chirlaque-ren zuzendaritzapean. Beranduago, herriko orkestra bezala birsortu zen, Musika Eskolari ikasleen orkestra propioa izatea ahalbidetzeko. Horrela, Euskal Herrian, musikari ez-profesionalez osatutako herri-orkestra bakarrenetakoa bihurtu zen.

Klasikotik gaur egungo musikara, eta musika serioetatik herrikoietara, denetik aurki daiteke bere errepertorioan. Bergarako kultura musikala anitzagoa izatea du helburu. Eta era berean, harro ordezkatu du herria hainbat eskenatoki urrunetan ere, Madrilen, Andaluzian, edota Euskal hiriburu guztietan kasu.

Sorreratik bere zuzendari izan den Alfredo Glz. Chirlaque 2019ko ekainean ordezkatu du Enrike Txurrukak, orkestraren bidean etapa berri bat zabalduz.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 60
- **BAZKIDEEN ADINA:** 17 urtetik 60ra bitartekoak
- **TALDEA BILTZEKO:**
  - EGUNA: Ostirala.
  - ORDUA: 20:00-22:00.
  - TOKIA: Zabalotegi aretoa.



- **EGITEN DUTEN LANA:**
  - Urtean 4 kontzertu finko herrian: Inauteriak, San Pedro, Santa Zezilia eta Gabonak.
  - Sortzen diren beste edozein aukera, herrian edo kanpoan ere.
- **KONTAKTUA:** bergarakoorkesta@gmail.com

**Kultura Zerbitzua 943 77 91 59**
**kultura@bergara.eus**

BERGARA izan, bizi, ekin | Bergarako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa — ETORKIZUNA ORAIN / Es futuro — EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO, KULTURA SAILA

Agendako ekintza batean zeinu hizkuntza interpretazio zerbitzua eduki nahi izanez gero **www.bergara.eus** edo Udaletxean eskatu dezakezu.

*Si desea contar con servicio de traducción de lenguaje de signos puede solicitarlo en* ***www.bergara.eus*** *o en el Ayuntamiento.*

**IRAILA**

| A | AS | AZ | O | OS | L | IG |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | | | |

**Musika, Antzerkia eta Ikuskizunak**
Música, Teatro y Espectáculos

**Haurrentzako Ekintzak**
Actividades Infantiles

**Kirola**
Deporte

**Hitzaldiak eta Ikastaroak**
Charlas y Cursos

**Ospakizunak eta Azokak**
Celebraciones y Mercados

**Tokia /** Lugar

## BERGARAKO STOLTZ-FRÈRES ORGANOAREN LAGUNEN ELKARTEA



2014. urtean sortutako taldea da. Irabazi asmorik gabeko elkarte honek helburu bakarra du: "Bergarako Pedro Deunaren parrokiako Stoltz-Frères organoa maila guztietan babestea, sustatzea eta zabaltzea". Organo hau XIX. mendeko organo handien lekukoa dugu, jatorrizko egoeratik oso gertu dago, eta horrela mantendu behar da. Baina 1889. urtetik urteak pasa dira eta denboraren zama jasaten ari da. Gaur egun egoera kritikoan dago eta behar-beharrezkoa da eraberritzea; baina bere jatortasuna, bere ezaugarriak eta bere esentzia galdu gabe. Zorionez, Bergarako herritarrei eta kanpotik dirua biltzeko kontzertuak musutruk ematera etorri diren musikariei esker, eta hauekin batera Gipuzkoako Aldundiak, Gotzaitegiak, Bergarako Udalak eta Bergarako parrokiak emandako dirulaguntzekin, helburua gauzatzeko bidean da, eta datozen hiru urteen ostean, bitxi eder honen dohainak herrira eta mundu osora zabaltzeko aukera izango dugu.

- **TALDEA BILTZEKO:**
  - EGUNA: Egun finkorik gabe.
  - TOKIA: Alkabieta 1 (San Martin Agirre parrokia-etxea, "Sierbak").
- **EGITEN DUTEN LANA:**
  - Organoaren balioa aitortzeko bideak zabaldu (erakundeetan, herrian, munduan).
  - Organoa eraberritzeko fondoak lortu (laguntzak, dohaintzak...).
  - Organo-kontzertuen bidez elkartearen eta organoaren egoeraren berri eman.
- **KONTAKTUA:** bergaraorganoa@gmail.com https://www.facebook.com/pg/Bergarako-Stoltz-Fr%C3%A8res-Organoaren-Lagu...

## BERGARAKO TAILA ELKARTEA

2004an eratu zen Bergarako Taila Elkartea, egur mota ezberdinak ezagutu eta lantzeko helburuarekin. Asteko edozein egunetan zabalduta egoten diren beren lokaleko ateak, norberaren premien arabera. Hasi berrientzako ikastaroak ere lantzen dituzte.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 25
- **BAZKIDEEN ADINA:** 16 urtetik 88ra bitartekoak.
- **TALDEA BILTZEKO:**
  - EGUNA: Egunero
  - ORDUA: Goizez 10:00-13:00; arratsaldez 16:00-20:00
  - TOKIA: Lokalean, Zabalotegi 11 - behea
- **EGITEN DUTEN LANA:**
  - Marrazkiak egurrean.
  - Taila egurrean (figurak, koadroak ...).
  - Egurraren tratamenduak (pipiaren aurkakoa, tinteak, pinturak).
  - Ikastaroak antolatu: hastapen eta sakontze mailak.
  - Urteko lanen erakusketa, Aroztegi aretoan.
- **KONTAKTUA:** tailaeskola@gmail.com



## BERGARAKO TXISTULARI TALDEA

- **BAZKIDEEN ADINA:** 35
- **TALDEA BILTZEKO:**
  - EGUNA: Asteazkena
  - ORDUA: 20:00ak
  - TOKIA: Musika Eskola
- **EGITEN DUTEN LANA:**
  - Txistuaren irakaskuntza eta hobekuntza ardatz hartuta zabalpena ematea.
  - Zuzeneko kontzertuak eta kalejirak.
- **KONTAKTUA:** bergarakotxistulariak@gmail.com



## JARDUN EUSKARA ELKARTEA

JARDUN EUSKARA ELKARTEA 1990ean sortu zen, hainbat euskaltzaleren bultzadarekin, euskararen erabilera normalizatzeko ikusten zen premiaren ildotik.

Jardun euskara elkartea, gaur egun ia 700 bazkidek, zuzendaritza batzordeak eta langile taldeak osatzen duten elkartea da.

Hasieran helburua euskal giroa berpiztea, jarduera euskaldunak bultzatzea, euskaltzale guztien indarrak batzea eta euskararen erabilera indartzea baziren ere behar berriak sortzen joan dira eta garai eta behar berrietara egokituta, elkarteak 30 urte baino gehiagoko ibilbidea egin du dagoeneko.

Helburu asko lortu diren arren, oraindik lan asko dago egiteko helburuen betetze-mailari dagokionez, eta horretan jarraitzen du Jardunek, batez ere euskararen motibazioa, kontzientzia, ezagutza eta erabilera sustatu eta euskarari espazio berriak eskainiz.

- **KONTAKTUA:**
  **Telefonoa:** 943763661 / 605712469
  **Posta Elektronikoa:** jardun@topagunea.com
  **Web orria:** www.jardun.eus
  **Bulegoa:** Errotalde jauregia z/g. - 20570 Bergara Gipuzkoa
  **Facebook:** Jardun Euskara Elkartea
  **Twitter:** @JardunEus

## SAN JOXEPE ABESBATZA

1975. urtean sortu zen, Bergarako jubilatuen elkartearen baitan. Gaur egun 45 lagunek osatzen dute taldea, 65 urtetik 90 urtera bitarteko gizon eta emakumeek.

Gaur egun Ramon Amasorrain da koruko zuzendaria.

- **TALDEA BILTZEKO:**
  - EGUNA: Osteguna.
  - ORDUA: 17:00 - 18:30
  - TOKIA: San Joxepeko egoitzan
- **KONTAKTURAKO TELEFONOA:**
  - 943 76 21 40 edo
  - sanjoxepe@telefonica.net / sjoxepe@gmail.com



# KULTURA KALERA

**25**

11:00 **Bergara monumentala bisita gidatua Bergaran** (euskaraz).
Izen-ematea: www.laboratorium.eus
Izen-ematea dohainik.
Aforo mugatua,
izen-emate ordenaren arabera.
Bergara



13:05 **Bergarako Aritzeta abesbatza, Orfeoia eta Gazteen Orfeoi gazteearen kontzertua.**
San Martin plaza. Euriarekin Seminarixoan

19:00 **Bergarako Golden Blend eta DBQ taldeen kontzertua.**
San Martin plaza. Euriarekin Seminarixoan

**26**

12:00 ***Musika tresnak aurkitzeko prest?* Ginkana musikala.**
Antolatzailea: Bergarako Musika Eskola.
San Martin plaza



12:30-14:00 **Bergarako kultur taldeen azoka.**
San Martin plaza. Euriarekin, plazako arkupetan

12:30 **Alai taldearen kantu saioa.**
Bergarako kaleetan

# IRAILEKO AGENDA

**2**

19:00 Hitzaldia: **"Garapen psikologikoa eta eraldaketa soziala".** (gazteleraz).
Hizlariak: Felix Laskurain eta Fernando Rodriguez.
Irizar jauregiko Euskaldunberri aretoa

**5**

19:00 **Jazz ibiltaria: Organik Matters taldearen kontzertua.**
San Martin plaza. Euriarekin Seminarioko karpan

**9**

10:00 **Bergara oinez, 7. irteera.**
Agorrosin

**10**

17:00 **Saskibaloiko Bergara Hiria Emakumezkoen txapelketa.**
Labegaraieta

19:30 **Bikote nagusiendako 36. dantza txapelketa (Moises Azpiazuren oroimenez)**
Antolatzailea: Bergarako Musika Eskola.
Laguntzailea: Bergarako Udala.
Seminarixoa

**11**

9:30 **San Martin FERIA.**
Ibargarai kalea. Seminarioko patioa

20:00 **Neomak taldearen kontzertua.**
Usondo parkea. Euriarekin Seminarioko karpan

**12**

12:00 Hitzaldia: **"Erraldoien jatorria eta ohiturak".**
Seminarixoa

**16**

12:30 **Musika Bandaren kontzertua.**
Udal pilotalekua

**18**

19:00 **KONTZERTU KLASIKOA: Oiasso kamerata.**
Santa Marina eliza

**23**

18:00 Hitzaldia: **"Kotoiaren emakumeak".**
Seminarixoa

**24**

20:00 **KONTZERTU KLASIKOA: Alos Quartet eta Musika Eskolako dantzariak.**
Santa Marina eliza

**26**

10:00 **Bergara oinez 8. irteera.**
Agorrosin

19:00 **KONTZERTU KLASIKOA: Koruko Andra Mari musika kapera.**
Santa Marina eliza

**28**

10:00 Hitzaldia: **ZTB: "Covid-19"a.**
Hizlaria: Miren Basaras, EHUko Mikrobiologoa.
Seminarixoa

## ZINE-KLUBA

**Seminarixoan, asteazkenetan, 20:00etan. Sarrera 3€**

**Irailak 8**

**"LES CHOSES QU'ON DIT, LES CHOSES QU'ON FAIT"**

**Irailak 22**

**"SPY NO TSUMA (WIFE OF A SPY-LA MUJER DEL ESPIA)"**

**Irailak 29**

**"CROCK OF GOLD: A FEW ROUNDS WITH SHANE MACGOWA".**

## ERAKUSKETAK

**2021/09/10 - 2021/09/26**
**"Bergarako Erraldoi Taldea"**
Aroztegi aretoa

Asteartetik ostiralera: 18:00-20:30
Larunbatetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30
Igande eta jai egunetan: 12:00-14:00

**2021/06/25 - 2021/10/10**
**"Kotoiaren emakumeak"**
Laboratorium museoa

Astelehen eta asteartetan itxita.
Asteazken eta ostegunetan: 10:00-14:00
Ostiral eta larunbatetan: 10:00-14:00/ 16:00-19:00
Igandetan : 10:00-13:00

## HILABETERO

**KZguneko ikastaroak**
Informazio gehiago:
https://www.kzgunea.eus/es/proximos-cursos
edo 943 023 626
Irizar jauregia

**04 11 18 25**

18:00 **Eguazteneko azoka:**
Baserritarren produktuak, bertakoak eta sasoikoak.
Oxirondo azoka

## ALAI TALDEA
### GIZONEZKO AHOTS GRABEEN ABESBATZA

1971. urtean sortutako gizonezkoen ahots grabeen abesbatza da. Bergarako ohiturak eta kultura bultzatu eta kale-giroa kantuz alaitzeko helburuarekin sortu zen. Batez ere euskal abestiak lantzen dituzte. 2009. urtean elkarte bezala eratu ziren.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 16
- **TALDEA BILTZEKO:**
  - EGUNA: Asteazkena
  - ORDUA: 20:00-21:00
  - TOKIA: Ospitaleko eliza (Mizpiralde)
- **EGITEN DUTEN LANA:**
  - Entseguak.
  - Bergarako auzoetako jaietan kontzertuak.
  - Egun berezietan hirigunea girotu (Santa Ageda bezpera, Eguberriak ...).
  - Irteerak beste herri batzuetara.
- **KONTAKTUA:** kultura@bergara.eus



## ARITZETA ABESBATZA

1979. urtean sortu zen abesbatza. Sortu zenetik 400 pertsona inguru pasa dira bertatik. Gaur egun 22 urtetik 65 urtera bitarteko 25 kidek osatzen dute talde koral hau. Euskal Herrian ezezik Espainian ere eman dituzte kontzertuak, eta hainbat antzerki-lan eta musikaletan ere hartu dute parte.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 25
- **BAZKIDEEN ADINA:** 22 urtetik 65era bitartekoak.
- **TALDEA BILTZEKO:**
  - EGUNA: Astelehena eta asteazkena.
  - ORDUA: 21:00-22:30.
  - TOKIA: Ospitaleko eliza (Mizpiralde).
- **EGITEN DUTEN LANA:**
  - Gabonetako kontzertua, Inauterietako kontzertua, bestelako kontzertuak...
  - Hainbat antzerki-lan eta musikaletan hartu du parte.
  - Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko fundatzailea ere bada.
- **KONTAKTUA:** aritzetaabesbatza@gmail.com



## ARIZONDO ARGAZKI TALDEA

2012. urtean argazkilaritza bultzatzeko helburuarekin osatutako elkartea. Jatorria Pol-Pol argazki taldean du (1994. urtean sortua).

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 30
- **BAZKIDEEN ADINA:** 25 urtetik 67ra bitartekoak.
- **TALDEA BILTZEKO:**
  - EGUNA: Astelehena
  - ORDUA: 19:30-21:00
  - TOKIA: Zabalotegi 5 (lokala)
- **EGITEN DUTEN LANA:**
  - Argazki teknika erakutsi.
  - Urteko ekintzak antolatu.
  - Lokalaren mantenua landu.
  - Ikastaroak prestatu. Oinarrizko argazkilaritza-ikastaroa, Photoshop ikastaroa eta mugikorrarekin oinarrizko argazkilaritza-ikastaroa.
  - "Bergara Hiria" argazki-lehiaketa eta "Kirol Argazki Lehiaketa" antolatu eta ondoren erakusketak egin.
- **KONTAKTUA:** arizondoae@gmail.com



## BEART ELKARTEA
### PINTURA, ESKULTURA... ARTE PLASTIKOAK




## BERGARAKO BUZTINTZALE ZERAMIKA ESKOLA

40 urte baino gehiago daramatzate zeramika lantzen, baina 2006an eratu zuten elkartea. Azken urteetan hainbat bazkide berri animatu dira buztinaren mundua ezagutzera.
Hainbat zeramika modalitate lantzen dituzte: tornua, murala, eskultura... Tarteka hastapen ikastaroak eskeintzen dituzte herritarrek zeramikaren mundua ezagutzeko aukera izan dezaten.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 28
- **BAZKIDEEN ADINA:** 25-73 urte tartekoak
- **TALDEA BILTZEKO TOKIA:** Zabalotegi 11, behea (lokala)
- **EGITEN DUTEN LANA:**
  - Erakusketa Aroztegi aretoan.
  - Bergarako ferietan lanak erakutsi zein tailerrak eskeini.
  - Helduendako eta haurrendako hastapen ikastaroak.
- **KONTAKTUA:** E-posta: buztintzaleak@gmail.com
  Instagrama: @buztintzaleak
  Facebooka: Buztintzale Bergara



## BERGARAKO ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA

2000. urtean Bergaran sortutako taldea. 4 erraldoirekin hasi zuten beren jarduna, eta gaur egun 6 erraldoi handi, 8 erraldoi txiki, 2 ipotx eta 6 buruhandi eta 4 kiliki dituzte.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** Nagusi eta ume artean 100 lagun.
- **BAZKIDEEN ADINA:** 6 urtetik 77ra bitartekoak.
- **TALDEA BILTZEKO:**
  - EGUNA: Ez dute egun zehatzik.
  - TOKIA: Zabalotegi kalea 3 (Gaztelekua).
- **EGITEN DUTEN LANA:**
  - Herrikozein kanpoko jaietan erraldoieta buruhandien kalejiran irtetea.
- **KONTAKTUA:** bergarakoerraldoiak@gmail.com

